

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Panafrikanismoaz oroitzuz Nkrumah-ren 100. urteurrenean

Afrika osoa egitura politiko bakarrean biltzeaz orain baino gehiago hitz egiten zen hango herrialdeak independentziara iritsi berritan. Geroztik panafrikanismoa aldika esnatzen da eta aldika lozorroan galtzen. Duela mende bat sortu zen Kwame Nkrumah geratu da haren ikur historiko.

MUHAMMAR GADAFI-K 1999AN Afrikar Batasuna (AB) aldarrikatu zuenean, ordura arte Afrikaren Batasunerako Erakundeari (ABE) izenarekin batera izaera aldatzeko itxaropenez egin zuen. Kontinente osoaren egituraketa lortzeko jauzia nahi zuen Gaddafik, 1965an erakunde beraren beste biltzar batean Kwame Nkrumah Ghanako presidenteak egin nahi izan zuen tamainako keinua. Baina hutsetik askoz haratago ez ziren iritsi, ez bata eta ez bestea.

Panfricanisme: de Nkrumah à Kadhafi dossiera plazaratu du *Afrique-Asie* hilabetekariak. Frantsesezko kazeta hau urte luzez Afrikako mugimendu aurrerakoien erreferentzietako bat zen Simon Malley-ren zuzendaritzapean. Malley (1923-2006) kulturaz judua zen eta jatorriz egiptoarra. Gamal Abdel Nasserren kolpea lagundu zuen 1952an eta geroztik Kairoko gobernuak ordezkartza lanetan erabili zuen.

1969an Frantziara joanik, informazio tresnak sortzeari ekin zion, tartean lehenik *Africasia* eta gero *Afrique-Asie* deitu zena, orduan sasoiaren zeuden indar antikolonialistei eta oro har Hirugarren Munduaren aldeko mugimenduei oihartzuena eskainiz. Afrikaren bilakaeraren gakoak barnetik ezagutu dituzte.

Irailaren 21ean ziren 100 urte

Kwame Nkrumah sortu zela. Orduan Urrezko Kosta deitzen zen Ghanan sortua, seminario katolikotik pasa ondoren, Amerikako Estatu Batuetan egin zituen unibertsitate ikasketak. Gaztaroan AEBetan eta Britainia Handian egin urteetan ezagutu zituen panafrikanismoaren teorikoen ideiak eta baita marxistena ere.

Ghanara itzulita, britainiarren aurkako mugimenduan hasi eta laster azaldu zen buruzagien artean, politikan bezala sindikalgintzan. Convention People's Party fundatuta, Nkrumah famatu egin zen gidatzen zituen greba, boikot eta bestelako mobilizazio baketsuengatik.

Kartzelan zegoela irabazi zituen 1951ko lehen hauteskundeak eta 1952an izendatu zuten lehen ministro. Ondoko urteetan saiatuko zen mamitzen sozialismo afrikarra deitzen zuena ordurako inguruko herrialdeak baino garatuagoa zegoen Ghanan. Eta nazioarte mailan panafrikanismoa aldarrikatu zuen, mende erdi lehenagotik diasporako afrikarren artean landutako ideia.

Agintea hartu berritako lilurak laster hasi ziren ximeltzen. Kolonialisten hatzaparretatik eskapatzea ez zen erraza. Herrialdea industrialtzea ere ez. Sindikatuekin haserretu zen. Zergak handitu behar izan zituen. Protestak gero eta handiagoak

Time astekariaren artxiboetako argazkian ageri da Kwame Nkrumah, Ghanako presidente izana eta panafrikanismoaren ikurtzat ohoratzen dena. 1966an, kolpe militar batek lehendakaritza kendu baino urtebete lehenago, afrikarrak ohartarazi zituen kontinentearen batasuna emeki egin behar zela ziotenez: "Berandutzeak gure arteko ezberditasunak handiagotuko ditu eta neokolonialismoaren sarean harrapatuko gaitu. Kontinentearen askatasunerako lasterketa betirako galtzea eragin digu". Argazki txikikoa Ali-Ben Bongo da, Gaboneko presidente berria, 42 urtez agintean egon den haren aita Omar Bongoren lekuan jarri dena, adituen ustez Parisko gobernuarekin estu loturik dena. Bongotarrak dira Nkrumahren ifrentzua, indar kolonialen eskumakila.

ziren, lehendakariaren bakardadea bezala. 1966ko otsailean, Txina eta Vietnamera joana zela bixitan, militarrek estatu kolpea eman zioten, CIAren laguntzarekin.

Urte bete lehenago, Ghanako Akra hiriburuan, ahalegin berezia egin zuen Nkrumahk Afrikar batasunari irakinaldi berria ematen. Han ziren, besteren artean, Gamal Abdel Nasser, Haile Selassie, Seku Ture, Julius Nyerere eta Afrika askatu berri haren apostolutzat aipatuak izan diren gehienak. Baina Nkrumahren proposamenak ez ziren lege bihurtu. Afrikar Batasuna estatuen arteko erakunde lausotu baten hezurduran geratu zen galduta, hala diote oraindik panafrikanismoa aldarrikatu beharreko asmoa dela uste duten *Afrique-Asie*koek.

Afrika ahoan baina ez sakelean

Nkrumahk *Africa must unite* (Afrikak batu behar du) liburu manifestua idatzi zuenerako panafrikanistak zatituta zeuden Afrikako Estatu Batuek antolatutako behar zirela uste zutenen eta urrats laburragoz aitzinatu behar zela uste zutenen artean. Hauentzako haiek iraultzaile ezker-tiarrak ziren eta lehenengoentzako bigarrenok neokolonialisten kolaboratzaileak.

Gauza batean historiak eman dio arrazoi Nkrumahren: egitekoa azkar



egin behar zela, gainerantzean kanpoko presioek beren fruituak eman-go zituztela eta Afrika isolamendura eta bazterketara kondenatua izango zela.

1970tik aurrera panafricanismoa gero eta gehiago bihurtu zen agintarien buruhausteen bigarren mailara mugatutako gaia, eten gabe hitzaldietan lehen planoak aipatua izaten segiko zuen arren. Herrialdeen arteko tirabirak ugaritzeaz gain, 1980tik aurrera Amerikak eta Europak politika neoliberalak indartu zituzten mundu osoan. Azken hiru hamarkadotan Afrikan gertatu diren gerra eta sarraskiak nekez aurikusiko zituzten amesgaiztoetan ere antzianako ekintzaile anticolonialistek. Eta kontinentea txirotasunaren eta

kanpo zorraren leizean murgildu da zintzurreraino.

Afrikako Estatu Batuak izan behar zutenen ordezkualdekako itunak ugaritu dira. Kritikoek diotenez, hitzezkoak dira itunok beste ezer baino, eta horrela badira herrialdeak bi, hiru eta baita lau eskualde mailako itunetan sarturik daudenak.

Balio izan ote dute ahalegin horiek? *Nouvel Afrique-Asie* dio, penaturik, aurrerapen zehatzetan ez direla mamitu: *Grandes ambitions et petits moyens* (Helburu handiak, bitarteko txikiak). Hasteko, herritarren Afrikan barnako mugikortasunean gutxi aurreratu da. Muga administratiboak zertan diren irudikatzen duten pare bat zertzelada ikusi: Senegaleko herritar batek Kenya

joan nahi izanez gero Britainia Handiak Dakarren duen enbaxadan eskatu behar du bisa; eta keniatarrak Senegalera jo nahi badu Frantziaren Nairoibiko enbaxadan.

Afrika erabat zokoratua dago mundu mailako merkataritzan, salerosketa guztien %2 baino ez da afrikarrekiko. Baina kontinente barrukoak ere blokatuta daude azpiegiturek ezagatik.

Une honetan hiru proiektu nagusi daude eraikitze bidean Afrika barneko merkataritza suspertuko dutelakoan. Batetik Nigeria eta Kamerun batuko dituen 400 kilometroko autopista, Afrika ekialdetik mendebaldera zeharkatuko duen Mombasa-Lagos ardatzaren barruan. Bigarrenik, Burundi, Ruanda, Uganda, Kongo eta Kenyako sare elektrikoak lotuko dituen eskema berria, 800 kilometrokoa. Hirugarrena, Nigeriatik Nigerren barrena Aljeriaraino helduko den gas-hodia, 2.300 kilometro tartean Sahara zeharkatuz, 2015 edo 2017rako egunean 20 edo 30 milioi metro kubo gas garraiatzen eduki nahi dutena.

Panafricanismotik zer geratzen da? Batzuek Muammar Gaddafi ikusi dute amets hura gauzatu lezakeen gizontzat eta libiarrak bera Kwame Nkrumahen oinordekotza aldarrikatu du. Baina asmo handi hartara hurbiltzeko lanean bateko eta beste nazionalismoak toreatu beharko ditu, potentzia kolonialen presioak orekatu, mundializazio neoliberalari aurre egin, garapen maila oso ezberdinetan bizi diren herriak uztartu... eta afrikarren gehiengoarentzako lider onargarri bilakatu. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net

